


SAGARDO ETXEA



Sigfrido Koch argazkilaria

HERRI EKIMENAZ

LORETZEN ARI DEN FRUITUA

SAGARDO LANTZEN ARI DA ETXEA

Herri mogimenduaren ekimenaz «Loretzen ari den SAGARDO ETXE fruitua»ri buruz haseratik eta orain arte emandako pausoak eta lortutako helburuetak zehazki azaldu nahi dizkizuegu ASTIGAR elkartekook.

1.- 1983.tik 1989. bitartean urtez urte ASTIGAR Elkartearen ardurapean Sagardo denborada barruan Sagardo eta Sagardogintzaz Euskal Kultur asteen antolaketa burutzen da. Azken hauen barne 1987ean Sagardo Etxea eraikitzeo proposamen zehatza, etxea eta guztiz, Donostiako Udalari eginez.

Urte hauen barruan, Sagardogile elkarten ordezkari, Usurbilgo Andatza Elkartea partaide, Astigar lankide eta Diputazio Nekazaritza arloko teknikaria bertan zirelarik, Sagardo Etxea eraikuntzarako egitasmo nola bitartekoak lantzen aritu ginen, baita sagardoarekiko kultur ekintzen dinamizazio eta koordinazio lantzen ere.

2.- 1989. Azaroan Donostiako bi neskek kultur gestigintzaz egindako ikasketen aplikapen moduan, Astigarragan Sagardo Etxea sortzeko proiektu egitasmoa azaltzen dute aportazio gisa.

3.- 1990.eko Ekainaren 14ean Hondarribiko Zubieta Egoitzan Sagardogile «interprofesional» delakoaren bilerara, Hernani eta Astigarraga Udaletako Alkateak Sagardo Etxearen aurreegitasmoa marraz jartzeko konbidatuta izaten dira.

Topaketa honen ondorioz, proiektu honetan denon inplikazio eta konpromesua oinarritzat jotzen da. Era berean, Astigarragan hurrengo hilean gai bakarria bezala harturik bilera konbokatzeo ardura hartzen da.

4.- 1990.eko Uztailaren 5ean Astigarragako Udaletxean, Andatza Elkarteko bi partaide, Astigarkoa, Donostiako bi laguntzaile, EHNE-ko Idazkari, Sagardogile Elkarteko hiru lagun, Taldeko bi, Hernani eta Astigarragako Alkateak, Diputazioaren Nekazaritzako Diputatu eta Teknikaria eta Eusko Jaurlaritzako komertzializazio arduraduna biltzen gara. Jorratzen diren gaiak, Sagardo Etxearen izaera eta sektore bakoitzaren ardura eta konpromesua izanik.


5.- 1990.eko Irailan 20an, Sagardo Etxearen aurreproiektu abiapuntu moduan bildutakoaren artean puntu batzuen bideraketa planteiatzen da. Horien artean, etxe kokapenari buruzako honerako hirigintz estudio, memoria baterako zirriborroa, bisitaldi-bidai baten programa eta zkenik parte hartzen ari garen Elkartea, Talde eta instituzioen haserako diru-aporazio txiki bat guzti honi aurre egiteko.

Aipatutako gaien berri emateko eta koordinatzeko Astigarragako Alkatea arduratzen da.

6.- 1990.eko Abenduak 4. Astigarragako Udalak Sagardo Etxea hirigintz kokapenerako aurre-estudio enkargua «Normas Subsidiarias» delakoa egiten ari den ekipoiari egiten dio.

7.- 1991.eko Otsailaren 5ean, orain arte biltzen ari garen partaide gehienok Kultur Etxean azaldurik, zenbait puntuetaz informazioa ematen da, alegia, Irailaren 20.ko akordioaren tramiteez eta eskualdeko herriko erakunde eta Udaletxei Sagardo Etxea egitasmoaren berri nola parte hartzeko konbitea luzatzeko xehetasunaz.

8.- 1991.eko Otsailak 20, Bilkura honetan Sagardo etxe aurreproiektorako memoriaren zirriborroa landu zen honako puntuetaz; sarrera, helburuak zerbitzu eskaintza eta ekintza-aktibitateak. Denon artean lortutako printzipioen finkapenarekin gogoz aurrera egiteko konpromesua aberastu zen.



9.- 1991.eko Apirilak 10 Egun honetan aurreko bilera burututako lanari ekiteko ginen, baina partaide gutxi ginelarik, sagardo etxe eta antzeko museoak bisitatzeko bidaiak hitzegin genuen.

Astigarkook

SAGARDO ETXEA izateko Arau Subsidiario ekipoiak egindako proposamenetariko bat.